

## IKASKETAK, LANA, GIDATZEA...

Marihuana gero eta arruntagoa da gune publiko eta pribatuetan: eskolan, lanean, aisialdian, baita familian ere. Naturaltasun osoz kontsumitzen da gune horietan, beste pertsona batzuk aurrean egonagatik ere. Horrek guztiak erakusten du substantzia horrekikoak aldatzen ari direla gizartean. Haren kontsumoak eguneroko jardueretan (ikasketetan, lanean, gidatzean, pertsonen arteko harremanetan...) sortzen dituen arriskuak minimizatzen dira.

- Ikasketekin eta esparru akademikoarekin lotutako lanek kalteak jasan ditzakete memoria, arreta eta kontzentrazioa aldatzen baitira. Marihuanaren ohiko kontsumoa lotuta dago ikasmaita errepikatu edo ikasketak behar baino lehenago uzteko aukera handiagoarekin.
- Marihuana kontsumitzeak mugimenduaren deskoordinazioa, deskontzentrazioa eta orekaren afektazioa eragiten ditu, eta horrek guztiak zenbait lan eta ataza zailtzen ditu eta, orobat, istripuak eta lesioak izateko aukera handitzen. Lanean marihuanaren efektupean egoteak osasuna, norberarena eta gainerakoena, arriskuan jartzen du.
- Marihuanaren erabilerak ondorio negatiboak izan ditzake gidatzean – kontsumitutako kopuruaren arabera izanen dira–, hautematean eta erreflexuetan alterazioa, eta erabakiak hartzean atzerapena eragiten ditu, logalea, deskoordinazioa...  
Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren (DGT) datuen arabera, marihuanaren efektupean gidatzeak istripua izateko aukera bikoizten du eta aukera hori are handiagoa da beste substantzia batzuekin batera (alkohola, kokaina, bentzodiazepinak...) kontsumitzen bada. Marihuanaren substantzietako batzuk organismoan gehitzeak berarekin ekar dezake droga-kontroleran positibo ematea kontsumitu ondorengo orduetan, baita egunetara ere, betiere kontsumoaren maiztasunaren, substantzia-kopuruaren eta/edo erabilitako testaren arabera.